


NABARNIZ



KOBA SAKRATUA

Kristo jaio baño lenago Nabarnizko basoetan zer ikusten dogu? Barandiaran abade jakintsuak gure erriko lur bazterretan aurkitutako koba bat: Ondaro da bere izena. Bere barruan Neolítico eta Burdin Aroko gizaki kaska azurrak, eta illen omenez egindako oroigai bereziak azaldu ziran. Gaur egun gizon jakintsuen ikerketaren bidez jakin dakigu Ondaroko koba gure erriaren illerria izan zala.

Koba barrua areto leuna eta zabala da, eta baditu beste gune txiki batzuk. Egia esateko Nabarnizko eta inguruko ildakoak, millaka urteetan, koba sakratu ontan obiratuak izan ziran. Ondaro koba eta illerria gure asaba zarren ondare beneragarria da.





BIDEA ETA INGURUNEA

Ikazurieta auzoan, Onaindia eta Mane baserri artean, bertara joateko bidea artzen da eta Gorostiaga baserri aldera gurpidea jarraitu. Aurrerago ikusten da zurezko kartel bat: “Ondaro” Bide onen ondoan ikusiko doguz aintziñako sagardia eta sako-nune batean karobi zarra tinko dagoena.

Ondaroko koba, baso-basoan, zugaitz ederren gerizpean, toki zoragarrian kokatuta dago. Baña zoritxarrez kobaren sarrera eta ingurua sasiarte eta sastraka artean oso abandonatuta dago. Ara joateko gidaria bear da.

Gerratean, frankistak sartu ziranean, Nabarnizko ainbat gizon, euren artean nire aita, emen izkutatu ziran arik eta arriskua eta bildurra uxatu arte.

Nabarniztarrai, meza santuan, erriko jaietan, argi ta garbi esan neutsen. “Illerria au gure asaba zarren ondare beneragarria da. Eta benetan merezi dau bere bidea obetu, ingurua eta sarrera garbitu, eta barrua atondu. Nabarniztarrak, danok bat egiñik, ekin dagigun ekintza goragarri ontan. Mesedez ez obiratu erriaren ondasun eder ori. Gure kultura eta turismo-rako onuragarri izango da”

Meza ostean abadeari, alkateari eta beste gizon jator batzuei emon neutsen idazki bat. Danak onartu eta erakutsi eben borondate ona.



Nabarnizko basoan
euskal illerria
Ondaro dau izena
txit arrigarria.
Gure asaba zarren
obi sakratua
opa deiogun danok
oroimen santua.

Zenon Uriguen